Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa
Consorcio de Residuos de Gipuzkoa

Nik, Raquel Olaizola Cortina, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorreko idazkari naizen aldetik,

**ZIURTATU BEHAR DUT:**

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko apirilaren 12an egindako ez-ohiko bilkuran honako ERABAKIA hartu du:

**HIRUGARREN GAIA. GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN ESTATUTUAK ALDATZEKO PROIEKTUA. ESTATUTUAK ALDATZEKO PROIEKTUA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

Ondorengo akordio proposamenaren berri eman ondoren, hau onartua izan da, 17 batzarkideren aldeko botoekin, botoen %74,4 suposatzen duena, 3 batzarkideren aurkako botoekin, botoen %5,4 suposatzen duena eta abstentziorik ez. Aldi berean, zazpi erakunde kontsorziatukideen aldeko botoa aurkezten dira, Diputazioa, San Marko, Debabarrena, Debagoeina, Sasieta, Urola Kosta eta Txingudi Mankomunitateak,erakunde kontsortziokide BAT-en aurkako botoarekin, Tolosaldea mankomunitatearena eta Urola Erdiko Mankomunitatearen ordezkarien quorum falta dela eta, abstentzio boto bezala zenbatua izan delarik. Guzti honengatik Presidente jaunak onartutzat hartzen du hurrengo akordioa.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusiak, 2016ko abenduaren 2an, Gipuzkoako

Raquel Olaizola Cortina, Secretaria de la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa,

**CERTIFICO:**

Que la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, en sesión extraordinaria celebrada el 12 de abril de 2017 ha adoptado el siguiente ACUERDO:

**PUNTO TERCERO. PROYECTO DE MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS DEL CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA. APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PROYECTO DE MODIFICACIÓN ESTATUTARIA.**

Dada cuenta de la propuesta de acuerdo siguiente, ésta resulta aprobada, con el voto favorable emitido por 17 asambleístas, que representan el 74,4% de los votos, el voto en contra emitido por 3 asambleístas que representan el 5,4% de los votos y ninguna abstención. Concurre asimismo, el voto favorable emitido por siete entes consorciados, Diputación, mancomunidades de San Marko, Debabarrena, Debagoiena, Sasieta, Urola Kosta y Txingudi, el voto en contra de UN ente consorciado, la mancomunidad de Tolosaldea y la abstención de la Mancomunidad de Urola Erdia, computada así por falta de quórum de asistencia de sus representantes. Por todo lo cual el Sr. Presidente declara aprobada la siguiente Propuesta de Acuerdo.

Con fecha 2 de diciembre de 2016, se adoptó por la Asamblea General del Consorcio de

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa
Consorcio de Residuos de Gipuzkoa

Hondakinen Kontsortzioaren estatutuak aldatzeko proiektuari hasierako onespena ematea erabaki zuen, eta horretarako izapideei ekitea, estatutu horien 35. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Saio horretan onartutako aldaketa proiektuak estatutuen 14. artikulua ukitzen du; zehazki, Batzar Nagusiaren saioetarako deialdien epeak. Hala, artikulu horren 2., 3. eta 4. apartatuak honeal idaztea proposatu zen:

- **Honakoa dioen lekuan:**

14. artikulua, 2 zenbakia, azkeneko paragrafoa: Deialdia gutxienez bilkura baino zazpi egun lehenago egin beharko da.

- **Honako aldaketa hau egitea onartu da, hasierako izaeraz:**

Deialdia, gutxienez, bilkura baino bi egun baliodunekoaurretiaz egingo da.

- **Honakoa dioen lekuan:**

14. artikulua, 3 zenbakia, paragrafoaren bukaera: eta hamabost egun baliodunekoaurretiaz jakinaraziko da.

- **Honako aldaketa hau egitea onartu da, hasierako izaeraz:**

14. artikulua, 3 zenbakia, paragrafoaren bukaera: Deialdia, gutxienez, bilkura baino bi egun baliodunekoaurretiaz egingo da.

- **Honakoa dioen lekuan:**

14. artikulua, 4 zenbakia, paragrafoaren bukaera: deialdia, gutxienez, bilkura baino hiru

Residuos de Gipuzkoa, acuerdo de aprobación inicial del proyecto de modificación de estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y su tramitación, conforme a lo dispuesto en el Art. 35 de los citados estatutos.

El proyecto de modificación así aprobado, afecta a la redacción de su artículo 14 y, concretamente, a los plazos de convocatoria de las sesiones de la Asamblea General, proponiéndose la siguiente redacción de los apartados 2, 3 y 4 del artículo señalado.

- **Donde dice:**

Art. 14, núm. 2, último párrafo: La convocatoria se efectuará con una antelación no inferior a siete días.

- **Se ha aprobado inicialmente la siguiente modificación:**

Art. 14, núm. 2, último párrafo: La convocatoria se efectuará con una antelación no inferior a dos días hábiles a la celebración de la sesión.

- **Donde dice:**

Art. 14, núm. 3, final del párrafo: notificándolo con una antelación de quince días hábiles.

- **Se ha aprobado inicialmente la siguiente modificación:**

Art. 14, núm. 3, final del párrafo: Convocándola con una antelación no inferior a dos días hábiles a la celebración de la sesión.

- **Donde dice:**

Art. 14, núm. 4, final del párrafo: debiendo realizar la convocatoria con una antelación

egun balioduneko aurretiaz egingo da.

- **Honako aldaketa hau egitea onartu da, hasierako izaeraz:**

14. artikulua, 4 zenbakia, paragrafoaren bukaera: Ezabatzea.

Aldaketa proiektua arrazoitzeko, honako argudioak eman ziren:

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren bilkuratarako deialdiak, oraingo estatutuetan, epe luzeegiekin arautuak daude, eta horrek eskumeneko zerbitzuak kudeatzeko eragozpen handiak eragiten ditu kontsortzioaren eskumenekoak diren gaien funtzionamenduan eta kudeaketan. Gainera, askotan, gai horiei buruz hartu behar diren erabakiak –gorago aipatutako 14. artikuluan ezarritako deialdi-erregimena dela eta, ekitaldi bakoitzean ohiko bi bilkura bakarrik eginda, eta gutxienez hamabost laneguneko aurretiaz deituta–, trabak besterik ez dute izaten, erabakien eraginkortasuna eta bideragarritasuna arriskuan jarriz.

Hori guztia dela eta, erabaki da bidezkoa dela Hondakinen Kontsortzioaren estatutuen edukia aldatzea, ohiko, ez-ohiko eta premiazko bilkuretarako deialdien epeei dagokienez. Komenigarritzat jo da, halaber, epe hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.b) artikuluan ezarritakora moldatzea, zeren eta eduki hori bera azaltzen baita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren 48.2 artikuluan, eta Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 80.4 artikuluan, udalbatzetan aplikagarriak biak ere.

mínima de tres días hábiles.

- **Se ha aprobado inicialmente la siguiente modificación:**

Art. 14, núm. 4, final del párrafo: Suprimirlo.

El proyecto de modificación se motivó en base a las siguientes argumentaciones.

La regulación en los estatutos, de las convocatorias de sesiones de la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, con uno plazos excesivamente largos, produce desajustes importantes en la operativa y gestión de los asuntos competencia del consorcio, que, con mayor frecuencia, requieren de la adopción de decisiones que, por el régimen de convocatorias establecidas en el artículo 14 antecitado, con tan solo dos sesiones ordinarias en cada ejercicio, y un plazo de 15 días hábiles de antelación, para las sesiones extraordinarias, resultan entorpecidas, poniéndose en riesgo su eficacia y viabilidad.

Por todo ello, se considera la conveniencia de modificar el contenido de los estatutos del Consorcio de Residuos, en lo relativo a los plazos de convocatoria de las sesiones ordinarias, extraordinarias y extraordinarias urgentes, asimilando dicho plazo, al establecido en el artículo 46.2.b) de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, que, asimismo, figura en el artículo 48.2 del TRLRBRL y en el 80.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico, que resultan de aplicación a los plenos municipales. Dicho plazo, de convocatoria de sesiones ordinarias y

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa
Consorcio de Residuos de Gipuzkoa

Ohiko eta ez-ohiko bilkuretarako deialdia egiteko epea, bilkura egin aurreko gutxienez bi egun baliodunekoa da; jakina, epe horretan, deialdia Batzar Nagusiko kideei jakinarazi behar zaiela ulertuta, betiere.

Gainera, ez da ahaztu behar, indarrean dagoen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak, urriaren 1eko 40/2016 Legeak, administrazio publikoen organo kolegiatuen funtzionamenduari dagokionez, ez duela gutxieneko epe bat ezartzen organo kolegiatuen bilkuretarako deialdia egiteko; eta 124. artikuluan, estatutuetara jotzen duela kontsortzioen gobernu eta administrazio organoen funtzionamendua eta osaketa zehazteko.

Horrela bada, kontuan hartuta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa izaera lokaleko zerbitzu publikoez arduratzen dela, bidezkoa dirudi udalbatzen bilkurak deitzeko legez ezarritako epea erreferentzia gisa hartzea, bilkura horietan, besteak beste, bertako zerbitzuei buruzko gaiak lantzen baitira. Beraz, bidezkoa dirudi, legez ezarritako epe hori izatea Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusiaren deialdirako epea.

Estatutuak aldatzeko prozeduraren tramitazioari gagozkiola, hasierako izaeraz onartutako aldaketa proiektu hau, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren estatutuen 35. artikuluan ezarritakoari jarraituz, jendaurrean ikusgai jarri zen GAOn bidezko iragarkia argitaratuta eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren web orrian hilabetez argitara emanda; gainera, entitate kontsortziokideei bidali zitzaien, beren iragarki-tauletan jar zezaten eta udalei igor

extraordinarias, es de, al menos, dos días hábiles de antelación a la celebración de la sesión, entendiendo que en dicho plazo, la convocatoria debe ser notificada a los miembros de la Asamblea General.

Además, debe considerarse que la regulación en la vigente Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, Ley 40/2016, de 1 de octubre, respecto del funcionamiento de los órganos colegiados de las Administraciones Públicas, no recoge un plazo mínimo de convocatoria de reuniones de los órganos colegiados, y en su artículo 124, se remite a los estatutos para fijar el funcionamiento y composición de los órganos de gobierno y administración de los consorcios.

En su virtud, considerando que el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, se ocupa de servicios públicos de carácter local, parece adecuado tomar como referencia el plazo que marca la ley para convocar sesiones de plenos municipales, en los cuales se tratan, entre otros muchos, asuntos relativos a servicios locales, y que éste sea el plazo de convocatoria de la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

Respecto a la tramitación del procedimiento de modificación, de conformidad con lo establecido en el art. 35 de los estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, el proyecto de modificación inicialmente aprobado, se sometió a información pública, mediante anuncio en el BOG y en la página web del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, por plazo de un mes, y se remitió a los Entes Consorciados para que se expusiera en sus tablones de anuncios y se

ziezaien, interesdunek alegazioak egin nahi bazituzten ere.

Izapide horretan zehar, aldaketa-proiektuari ez zaio alegazio bat bera ere jarri.

Gero, 2017ko martxoaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiak arauzko txostena egin du aldaketa proiektuari eta aldaketa horren arrazoiei buruz; eta estatutuen 14. artikulua aldatzeko proiektuaren aldeko informea egin du. Hala eta guztiz ere, euskarazko testuan desadostasunak antzeman ditu Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Nagusiak proposatutako aldaketaren eta jendaurrean ikusgai jarritako testuaren artean. Beraz, desadostasun horiek zuzendu egingo dira, nahasmendurik gerta ez dadin.

Bukatzeko, kontuan hartuta akordio honek aurrera egingo badu, botoen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoa behar dela, eta kopuru horrek, halaber, entitate kontsortziokideen gehiengo absolutua izan behar duela, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko letratu aholkulariek egindako akordioaren legezkotasun txostena erantsi zaio espedienteari.

Aipatutako guztiagatik, 2017ko apirilaren 12an, Batzar Nagusiak hartu zuen ondoko

**ERABAKIA:**

**<u>LEHENIK.</u>** Behin betiko onartzea Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren estatutuak aldatzeko proiektua, estatutuen 14. artikuluaren idazkerari buruzkoa, eta entitate

remitiera a los ayuntamientos, a efectos de posibles alegaciones que se pudieran formular.

En dicho trámite, no ha sido presentada alegación alguna al proyecto de modificación.

A continuación, con fecha 13 de marzo de 2017, la Diputación Foral de Gipuzkoa, ha emitido informe preceptivo sobre el proyecto de modificación y su motivación, informando favorablemente el proyecto citado de modificación del artículo 14 de los estatutos. No obstante, aprecia discordancias en la redacción en euskera entre la modificación propuesta por la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y el texto expuesto en información pública, que se procederá a subsanar, para no dar lugar a confusión.

Para finalizar, siendo un acuerdo que requiere para su adopción, el voto favorable emitido por mayoría absoluta del número legal de votos, que asimismo, suponga, mayoría absoluta del número legal de Entes Consorciados, se ha aportado al expediente informe de legalidad del acuerdo emitido por los letrados asesores del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

En virtud de lo anteriormente expuesto, como Presidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa emito la siguiente

**PROPUESTA DE ACUERDO:**

**<u>PRIMERO</u>**. Aprobar, con carácter definitivo, el proyecto de modificación de estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, que afecta a la redacción del artículo 14, y

kontsortziokideen irizpenera jartzea, akordioa jakinarazten zaienetik hasita lau hilabeteko epean onar dezaten. Onarpen horretarako, gehiengoaren aldeko botoa beharko da. Eta, onartuko balitz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren estatutuen 14. artikulua indarrean jarriko da, GAOn argitaratu ostean.

someterlo a aprobación de los Entes Consorciados, en el plazo de cuatro meses, a contar a partir del siguiente al de la notificación del acuerdo, requiriéndose para su aprobación, el acuerdo favorable emitido por la mayoría. Tras lo cual, y si así resultase aprobado, la modificación del artículo 14 de los estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, entrará en vigor, tras su publicación en el BOG.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena; nolanahi ere, akta onartzeko dagoenaren salbuespena du.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, con el visto bueno de la Presidente y con la salvedad de que el acta está pendiente de aprobación.

Hernanin, 2017ko apirilaren 28an.

En Hernani, a 28 de abril de 2017

VºBº/O.E.
PRESIDENTEA/ EL PRESIDENTE

Jose Ignacio Asensio Bazterra

IDAZKARIA

Raquel Olaizola Cortina